



Beasaino Udala

Beasainen, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita bian

BILDURIK

Alde batetik, BEASAINGO UDALA Aitor Aldasoro Iturbe jaunak ordezkatura, Beasaingo Udalaren Alkate-lehendakaria, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua.

Bestetik, OSTADAR DANTZA TALDEA (N.I.F.: G75150011), Irati Otamendi Justo (NA 20895450L) Ostadar Dantza taldearen Lehendakariak ordezkatura, 2015eko azaroaren 5eko batzar orokorrean hartutako erabakiaren arabera.

AURREKINAK

- I. Beasaingo Ostadar Dantza Taldeak interesa duten kultur jarduerak egiten ditu.
- II. Beasaingo Ostadar Dantza Taldeak kultur sustapenean aktiboki laguntzen du euskal dantzen munduan.
- III. Hitzarmen honen helburura Ostadar Dantza Taldearen eta Udalaren arteko harremana erregulatzea da, 2018. urtean jarduera desberdinak egiteko.

BALDINTZAK

LEHENA.- Ostadar Dantza Taldeak honako jarduerak antolatu eta ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

- IHAUTERIETAKO DESFILEA, otsailak 10
- Goierriko Erromeria Bira, otsailak 10
- Plaza dantzen ikastaroa, otsailetik ekainera
- XVII. TOPAKETA Loinatz jaietan, maiatzaren 20an
- Gabonetako ekitaldia, abenduaren 22an, Usurbe Antzokian
- Jantzi eta material berriak
- Talderako ikastaroak: Txaramelarena eta bestelako dantzak
- *Dantzan.com* taldearekin elkarlana udalarekin sinatutako hitzarmenaren harira.
- Dantzari txikien parte hartzea hainbat ekitalditan

BIGARRENA.- Beasaingo Udalak jarduera horien antolaketarako **15.604 €** emanaz lagunduko dio. Ordainketa zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan eguneratuta dagoela kreditatu ondoren, urtean hiru aldiz egingo dira likidazioak 2.200 € martxoan, 9.410 € apirilean eta 3.994 € urrian, diru kopuru horren gaiz ondorengoa ere jarriko du:

- Gabonetako ekitaldia. Beasaingo Udalak ekintza hau Usurbe Antzokiaren lagapenaz lagunduko du.



Udalak ematen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu berdinetarako elkarteak jasotzen dituen beste laguntzekin. Jasoz gero, ezagutu bezain pronto, Udalarari jakinaraziko dio eta horrek hitzarmena berrikustea ekarriko du.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, OSTADAR DANTZA TALDEAK egiaztatu beharko du ordaindu beharreko zergak, gizarte-segurantzakoak barne, egunean dituela.

HIRUGARRENA.- Ostadar Dantza Taldeak bere partaidetza beharrezkoa den beste edozein ekitalditan lagunduko du eta eta kultur mahaian parte hartuko du.

LAUGARRENA.- Ostadar Dantza Taldeari dagokio hitzarmendutako jardueri beharrezkoa den publizitatea egitea eta Beasaingo Udalaren laguntza (eta logotipoa) aipatzea beraiek antolatutako jardueri buruz egiten dituzten prentsarako ohar guztietan. Era berean, leku duin eta ikusgarrian aipatu beharko dira Beasaingo Udalaren laguntza, kartel, aldizkari, esku-egitarau, e. a., motatako zabalkunde-bitartekoak erabiltzen direnean.

BOSGARRENA.- Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, idatziz sortzen diren material guztietan (kartel, diptiko, eskuliburu, apunte etab.) euskarari lehentasuna emango zaio eta materialen zirriborroak inprimategira eraman aurretik Udaletxera ekarriko dira testuen hizkuntz egokitasuna eta proportzioen zuzentasuna ziurtatzeko. Aurkezpenetan eta antzekoetan ere euskarak lehentasuna izango du.

SEIGARRENA.- Ostadar Dantza Taldea, publizitate bidez finantzatuko dituen diptiko edo beste edozein inprimakiren kasuan, dendariak euskarazko publizitatea eros dezaten ahaleginduko da eta, bestela, publizitatea ele bietara jasotzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartzen du.

ZAZPIGARRENA.- Udalak hizkuntzari dagozkion arlo guztietarako bere laguntza eta lankidetzak eskainiko ditu.

ZORTZIGARRENA.- Beasaingo Udalak beharrezkoak diren Udal zerbitzuak eskaintzen jarraituko du, esandako jarduerak ongi burutuko direla ziurtatzeko, eta Kultura Batzordeak horien antolaketa gainbegiratu ahal izango du.

BEDERATZIGARRENA.- Beasaingo Udalak Ostadar Dantza Taldeak aurkeztutako kontuan hitzarmendutako zenbatekoa sartuko du jarduera burutu baino lehen, eta Ostadar Dantza Taldeak urtea amaitu baino lehen udalaren esku utzi beharko du ondorengo dokumentazioa:

- a) Jardueren azalpen memoria, bertan ekitaldi guztietan egindako hizkuntz erabilpenaren berri zehatza eta arrazoitua eman.
- b) Fakturak edo eskuratutako dokumentuak, ahal bada originalak, edota fotokopiak, egindako gastuen egiaztagarri.
- c) Idatziz sortutako materialaren ale bana aurkeztu beharko ditu.





Beasaingo Udala

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau betetzeari dagokion guztirako, Ostadar Dantza Taldeak, Alkatetzak honetarako izendatzen duen pertsona edo pertsonekin izango ditu zuzeneko harremanak.

HAMAIKAGARRENA.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna babesteko klausula. Elkarrekin berdintasuneko irizpideak (Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta hau aldatzen duen otsailaren 16ko 3/2012 Legea) kontuan hartuko dituzte bai elkarrekin barruan bai eta sustatzen dituzten proposamenak gauzatzeko garaian ere.

HAMABIGARRENA.- Datu pertsonalak babesteko klausula.

- A. 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) ezarritakoa betez, alegia, Datu Pertsonalak Babestekoan, alde bakoitzak erasandakoen baimen informatua lortzeko ardura izango du, hain zuzen ere, hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean beharrezkoak diren beren datu pertsonalen tratamendurako. Era berean, alde bakoitzak hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean erabilitako datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzeko ardura izango du.
- B. Elkarrekin Beasaingo Udalarik datu pertsonalen lagapena eginez gero, uneoro, beren datu pertsonalak lagatzeko erasandakoen baimen informatua duela bermatu beharko du.
- C. Alde bakoitzak egin litzakeen indarrean dagoen datuak babesteko araudi honen ez-betetzeetatik lezotzeko ardura bere gain hartuko ditu.

HAMAHIRUGARRENA.- Aurreko edozein baldintza behar bezala ez betetzeak hitzarmen hau berrikustea ekarriko du.

HAMALAUGARRENA.- OSTADAR DANTZA TALDEAK (N.I.F.: G75150011), baimena ematen dio espresuki BEASAINGO UDALARI, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentutik eskura dezan, hitzarmen honetan aipatzen den ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK EGUNEAN IZATEAREN baldintza betetzen duela egiaztatzen duen agiria:

☒ BAI

☐ EZ

Eta esandako guztiarekin ados egonik, bildutakoek dokumentu hau urte baterako sinatu dute bikoizturik, goiburuan aipatutako data eta lekuan.

hati



